

## 2015eko Gazte Klik-klak lehiaketan lanak jasotzeko epea irekita dago

**Gazte Klik-Klak gazteentzako argazki digitalen eta bideoen lehiaketan lanak jasotzeko epea ireki da.** 14 eta 25 urte bitartekoentzako lehiaketan zure lanak aurkezteko aukera duzu urriaren 13ra arte.

**Lanak argazki sortetan, bideo formatuan eta gif animatuetan aurkez daitezke.**

**Gasteizko Udalaren Gazteria Atalak antolatuta**, 2015ean lehiaketaren zazpigarren edizioa egingo da. Orain arte lehiaketaren gaiak lurralde, berdintasun, mestizaia eta ekologiarekin izan dute lotura. Edizio honetarako argazki sortak eta bideoak “ **Hiriaren gaineko gazte begiradak; hiria bizitzeko tokia**” lelopean aurkeztu beharko dira.

**Irabazleek eta hautatuak** -90 pertsona baino gehiago 2009tik eta 2014ra bitarteko edizioetan-, **lanak ikusgai izango dituzte Montehermoso Kulturunean erakustaldi batean**, eta baita galeria birtual batean, milaka postaletan eta udalak hirian kudeatzen dituen publizitate euskarrietako neurri handiko karteletan ere.

**Montehermoso Kulturunean argazki sorten artean lau parte hartzailek aipamen berezi bat jasoko dute. Horrek 300,00 euroko bono trukagarria ekarriko die (argazki, bideo edo kultura materiala lortzeko) eta parte hartzea taldeko erakustaldi batean.** Erakustaldi horren gaia librea izango da, parte hartzaileen sormena bultzatzeko.

Lanak eman daitezke, lehiaketaren oinarrietan agertzen diren formatuaren adibideen arabera, bai gaztekliklak@gmail.com posta elektronikoa, bai CD batean Gazteen Argibideetarako Udal Bulegoan, Plaza Berriaren arkupeetan.

Gehiago jakiteko lehiaketaren **oinarriak** kontsultatu : [www.vitoria-gasteiz.org/gazteria](http://www.vitoria-gasteiz.org/gazteria)

**Zalantzak** argitzeko: [gaztekliklak@gmail.com](mailto:gaztekliklak@gmail.com)

## **Gazte Klik Klak 2015 abre su plazo de entrega**

Gazte Klik Klak, el **concurso de fotografía y video digital para jóvenes**, de 14 a 25 años abre su plazo de entrega de trabajos. Tienes tiempo de presentar tus series fotográficas y tus trabajos en video **hasta el 13 de octubre**.

**Los trabajos pueden presentarse en formato de series fotográficas, video o gifs animados.**

Organizado por la **Unidad de Juventud del Ayuntamiento de Vitoria – Gasteiz**, este es el séptimo año consecutivo en que se realiza el concurso. Se han reflejado hasta la fecha temas relacionados con el territorio, el mestizaje, la igualdad y la ecología desde una perspectiva joven. Para esta edición de 2015 las series deben ajustarse al lema **“Miradas jóvenes sobre la ciudad; la ciudad como escenario vital”**.

**Las personas ganadoras y seleccionadas**, más de 90 entre 2009 y 2014, **verán su obra expuesta en una muestra en el Centro Cultural Montehermoso**, además de en una galería virtual, en miles de postales y en carteles de grandes dimensiones en los postes publicitarios del Ayuntamiento de Vitoria – Gasteiz en las calles de nuestra ciudad.

**Entre todos los trabajos seleccionados para la exposición del Centro Cultural Montehermoso cuatro recibirán una mención especial que les permitirá conseguir un premio de 300,00 € en material fotográfico, videográfico o cultural y, sobre todo, la participación en una exposición colectiva** de tema libre que les permitirá dar vía libre a su vena creativa.

La entrega de los trabajos se puede hacer, en los formatos indicados en las bases del concurso, en la dirección de correo electrónico [gazteklikklak@gmail.com](mailto:gazteklikklak@gmail.com) o en un CD en la Oficina Municipal de Información Joven, situada en los soportales de la Plaza Nueva.

Para saber más puedes consultar las **bases del concurso** en: [www.vitoria-gasteiz.org/juventud](http://www.vitoria-gasteiz.org/juventud)

Para resolver dudas: [gazteklikklak@gmail.com](mailto:gazteklikklak@gmail.com)